erreferenteak **SKOLAE** referentes

# *emakumezkoen* OSASUNA *femenino*

Nafarroako futbolak emakumezkoen Osasuna taldea desagertzen ikusi zuen 2014an. Hala ere, Mulier FCN moduko taldeek eutsi egin zioten irrikari eta jarraipena eman zioten emakumezkoen futbolari. Handik 2 urtera, 2016an, Emakumezkoen Osasuna Fundazioa sortu zen Atletico Osasuna Klubak sustatutako proiektuari esker, emakumezkoen futbola Nafarroan hedatzeko eta hazteko. Fundazio-kide dira Osasuna, Burlades, Iruntxiki, Kirol Sport, Berriozar, Ardoi, Zarramonza, Lagunak eta Gazte Berriak klubak. Helburu nagusi dute emakumezkoen oinarrizko futbola garatzea Nafarroan, hartara, kirola egiteko aukera izan dezaten. Modu horretan, Fundazioaren bitartez, erreferentziazko taldea dauka Nafarroak emakumezkoen futbolean, epe luzera maila nagusian joka dezan.

Bere lehenengo denboraldian (2016/17) taldeak Emakumezkoen Erregionaleko liga irabazi zuen eta Bigarren Mailara igo zen. 2017/18 denboraldian bigarren talde bat sortu zen Emakumezkoen Erregionalean eta Sadarren lehenengoz jokatu zuten emakume futbolariek; Osasuna-Pradejón partida jokatu zen. 2018/19 denboraldian taldea Bigarren Mailatik sortu berri zen 1.B kategoriara igo zen. Gainera, bigarren taldea Emakumezkoen Erregionaletik Bigarren Mailara igo zen. Denboraldi honetan Emakumezkoen Osasuna taldeak hiru partida jokatu ditu Sadarren, Eibar, Alaves eta Santa Teresa taldeen aurka.

Emakumezkoen Osasuna taldea bideak irekitzen dituzten neskek osatzen dute, gure miresmena merezi dute desio dituzten espazioak betetzeagatik, orain arte gizonezkoen guneak izan diren arren. Gainera eskemak hausten laguntzen dute, mutilek uler dezaten futbola neskekin partekatutako kirola ere badela. Talde honek neskato kirolari askoren egunerokoa ikustarazten du, ikasketaz, esfortzuaz eta taldean jokatzearen arrakastez gozatzen duten neskak, izan futbolean nahiz bestelako kirol anitzetan non iristea, eta, batez ere, eustea are zailagoa den neskentzat mutilentzat baino.

El fútbol navarro sufrió en 2014 la desaparición del equipo femenino de Osasuna. Sin embargo, equipos como el FCN Mulier no cejaron en su empeño y dieron continuidad al fútbol de mujeres. 2 años más tarde, la Fundación Osasuna Femenino nace en 2016 como un proyecto a través del cual el Club Atlético Osasuna lideraría la expansión y el crecimiento del fútbol femenino en Navarra. Esta Fundación la componen los siguientes clubes: Osasuna, Burladés, Iruntxiki, Kirol Sport, Berriozar, Ardoi, Zarramonza, Lagunak y Gazte Berriak. Su objetivo primordial es desarrollar el fútbol base femenino en Navarra y dotar, así, de una vía para que las chicas puedan decantarse por esta práctica deportiva. De ese modo, a través de esta Fundación, Navarra cuenta con un equipo de referencia en el fútbol femenino, que a largo plazo pueda jugar en la máxima categoría.

En su primera temporada (2016/17) el equipo gana la liga de Regional Femenina y asciende a Segunda División. En la temporada 2017/18 se crea un segundo equipo en Regional Femenina y se abre El Sadar por primera vez al fútbol femenino en un Osasuna-Pradejón. En la temporada 2018/19 el equipo logra el ascenso de la Segunda División a la nueva categoría Primera B. Además, el segundo equipo de Osasuna Femenino asciende desde Regional Femenina hasta Segunda División. En esta temporada Osasuna Femenino juega tres partidos en El Sadar ante Eibar, Alavés y Santa Teresa.

El equipo Osasuna Femenino está conformado por chicas que abren caminos y que merecen nuestra admiración por su empeño en ocupar los espacios que desean, aunque siempre hayan sido espacios de hombres. Además ayudan a romper esquemas para que los chicos entiendan que el fútbol es también un deporte compartido con las chicas. Este equipo hace visible la realidad de muchas niñas deportistas que disfrutan del aprendizaje, el esfuerzo y los éxitos de jugar en equipo, a futbol y a muchos otros deportes en los que llegar y, sobre todo, mantenerse es más difícil para ellas que para ellos.

*bideak zabaltzen dituzten emakumeak*

*mujeres que abren caminos*



SKOLAE

BERDIN BIDEAN

CRECIENDO EN IGUALDAD

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

Hezkuntza Departamentua · Departamento de Educación